

Ekarpenak GEROAra (3.Xed. gehi) / Aportaciones a GEROA (Disp. Adic. 3ª)**EUSKO JAURLARITZA****EKONOMIA, LAN
ETA ENPLEGU SAILA**

Lan eta Gizarte Segurantzako
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza honetan, 2024-2027 urteetarako Gipuzkoako Zurraren Industriarako Lan Hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (200008250 11981 kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2024ko maiatzaren 27an, Adegí eta Arotzgi elkarteek enpresaburuen ordezkapenean, eta LAB eta CCOO sindikatuek langileen ordezkapenean, sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

Bigarrena. 2024ko ekainaren 4an, aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

Hirugarrena. Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikulua aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-02-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2024ko uztailaren 24an bete da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2024ko uztailaren 24a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (5793)

GOBIERNO VASCO**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO**

Delegación Territorial de Trabajo y
Seguridad Social de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo para la Industria de la Madera de Gipuzkoa 2024-2027 (código 20000825011981).

ANTECEDENTES

Primero. El día 27 de mayo de 2024, se suscribió el convenio citado por Adegí y Arotzgi en representación de las empresas, y por los sindicatos LAB y CCOO en representación de las personas trabajadoras.

Segundo. El día 4 de junio de 2024, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

Tercero. Se ha efectuado el requerimiento previsto en el artículo 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-02-2011), y se ha cumplimentado el 24 de julio de 2024.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 24 de julio de 2024.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (5793)

*Gipuzkoako Zur-Industriaren Hitzarmen Kolektiboa
2024-2027.*

I. KAPITULUA

EREMUA

1. artikulua. Lurralde-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau Gipuzkoako lurralde historiko osoari aplikatzen zaio.

2. artikulua. Funtzio eremua.

Honako jarduera hauek hitzarmen honen eraginpean daude:

1. Baso-lanak.
2. Zerrategiak.
3. Zur-zerrategiak.
4. Ontzi-zerrategiak.
5. Arotzeria mekanikoa.
6. Lantegiko arotzeria.
7. Erriberako arotzeria.
8. Pertsianak.
9. Zur-ebanisteria.
10. Tapizgintza.
11. Billarrak eta pianoak.
12. Erlojuak gordetzeko kutxak fabrikatzea.
13. Nezeserrak, kutxatila eta antzekoak.
14. Xafla eta taula kontraxapatuak.
15. Listoidun taulak.
16. Ate prefabrikatuak.
17. Partikula aglomeratuzko taulak.
18. Upelgintza.
19. Karrozeriak egitea.
20. Errepideak egitea.
21. Tornularitza.
22. Ehungintzako tornularitza.
23. Zurezko tailugileak.
24. Erljio-arte eta zurezko dekorazioa.
25. Modelogileak.
26. Markoak eta moldurak.
27. Saskiak, bihotza eta zumea.
28. Lezka hostozabalezko aulkiak.
29. Brotxak, pintzelak, eskuilak eta erratzak.
30. Enbalajeak.
31. Hormistak, abarkak eta kloskak.
32. Oholtzaileak.
33. Labankadak eta argizaria emateko makinak.
34. Akordeoiak, jostailu-denda eta puruak gordetzeko kutxak.
35. Bandurriak, gitarrak eta kontrabaxuak.
36. Bastoiak, aterkiak, pitak eta antzekoak.
37. Zurezko errotak.
38. Fruituak gordetzeko ontziak.
39. Zurezko pintzak, zurezko metroak eta antzekoak.
40. Zurezko biltegiak, orokorrean.

*Convenio Colectivo para la Industria de la Madera de
Gipuzkoa 2024-2027.*

CAPÍTULO I

ÁMBITO

Artículo 1.º Ámbito territorial.

El presente Convenio Colectivo es de aplicación en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 2.º Ámbito funcional.

Las actividades afectadas en el presente Convenio Colectivo son:

1. Labores forestales.
2. Serrerías.
3. Serrerías de leña.
4. Serrerías de envases.
5. Carpintería mecánica.
6. Carpintería de taller.
7. Carpintería de ribera.
8. Persianas.
9. Ebanistería de madera.
10. Tapicerías.
11. Billares y Pianos.
12. Fábricas de cajas para relojes.
13. Neceseres, estuches y similares.
14. Chapas y tableros contrachapados.
15. Tableros alistonados.
16. Puertas prefabricadas.
17. Tableros de partículas aglomeradas.
18. Tonelería.
19. Carrocerías.
20. Carreterías.
21. Tornería.
22. Tornería textil.
23. Tallistas de madera.
24. Arte religioso y decoración de madera.
25. Modelistas.
26. Marcos y Molduras.
27. Cesterías, médula y mimbre.
28. Sillas de enea.
29. Brochas, pinceles, cepillos y escobas.
30. Embalajes.
31. Hormistas, abarcas y almadreñas.
32. Entarimadores.
33. Acuchilladores y enceradores.
34. Acordeones, juguetería y cajas para puros.
35. Bandurrias, guitarras y violones.
36. Bastones, paraguas, boquillas y similares.
37. Molinos de Madera.
38. Envases para frutos.
39. Pinzas de madera, metros de madera y similares.
40. Almacenes de madera en general.

41. Zurezko pertxak eta esekigailuak.
42. Takoiak, zokaloak, kanbrilioak eta oinetakoentzako egurrezko ziriak.
43. Txirbilak egitea.
44. Poleak.
45. Hilkutxak.
46. Kutxak.
47. Zurezko lapitzak eta antzekoak.
48. Zura eta zutoinak zaintzea.
49. Egun dagoen edota etorkizunean zor daitekeen edozein zur-jarduera.

3. artikulua. Langile-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau 2. artikuluan adierazitako jardueretan diharduten enpresetako langile guztiei aplikatuko zaie, sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoeetako kide edo kontseilari kargua soilik betetzen dutenei izan ezik, Langileen Estatutuaren 1.3 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetako klausulak aplikatuzetik salbuetsita egongo dira, bai klausula bakoitzaren eduki osoari dagokionez, bai klausula horietako puntu edo alderdi berezituak dagokienez soilik, langileen legezko ordezkariak hitzarmen honetan araututakoak bestelako gai zehatz eta espezifikoaren bat itundu edo hitzartuta duten enpresak, betiere itun horiek idatziz jasota badaude.

4. artikulua. Denbora-eremua.

Hitzarmen hau 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean ondorio guztietarako, eta 2027ko abenduaren 31ra arte iraungo du, hitzarmenean beste indarraldi bat aurreikusten den gaitan izan ezik.

Hurrengo hitzarmena salatzeko aurreabisua 2028ko urtarrilaren 1ean baino lehen hasiko da.

Zur Industriaren 2024-2027ko Hitzarmen Kolektiborako Negoziazio Mahaian ordezkariak sindikalaren osaera zehazteko, 2024ko urtarrilaren 31ko hauteskundeetako emaitzak hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, etorkizuneko negoziazio-mahaiak eratzeko, hitzarmen bakoitzaren indarraldia amaitzen den urteko uztailaren 31n dagozkion ordezkariatasunak hartuko dira erreferentziatzat.

5. artikulua. Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen hau gutxieneko izaeraz ezartzen da; beraz, beste maila batzuetako itunekin osatu ahal izango da.

6. artikulua. Xurgatzea eta konpentsazioa.

Hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomikoak xurgatu eta konpentsatu ahal izango dituzte aurretik zeuden hobekuntza mota guztiek (plusak eta beste edozein sortzapenek), hitzarmen honetan berariaz zehazten diren salbuespenak eta legez ezarritakoak izan ezik.

7. artikulua. Baldintza hobekak.

Enpresek ezarritako baldintza onuragarrienei eutsiko zaie, baldintza horiek, oro har, hitzarmen honetan zehaztutakoak gainditzen dituztenean, halako moldez non ezein langile ez den kalteua izango baldintza horiek aplikatzeagatik.

Aurreko lerrokadaren ondorioetarako, kaltetzat hartuko da hitzarmen hau eguneratzearen ondorioz langilearen guztizko soldata-zenbatekoa gutxitzea baino ez.

41. Perchas y colgadores de madera.
42. Tacones, zócalos, cambrillones y cuñas de madera para zapatos.
43. Fabricación de virutilla.
44. Poleas.
45. Ataúdes y féretros.
46. Baúles.
47. Lápices de madera y similares.
48. Preservación de maderas y postes.
49. Toda otra actividad industrial maderera que exista o pueda crearse.

Artículo 3.º *Ámbito personal.*

El presente Convenio Colectivo será de aplicación para todas las personas trabajadoras que presten sus servicios en las empresas dedicadas a las actividades indicadas en el artículo 2.º, excepto a las que se dediquen al mero desempeño del cargo de consejero/a o miembro de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad, en los términos previstos en el artículo 1.3 c) del Estatuto de los Trabajadores.

Quedarán exceptuadas de la aplicación de las correspondientes cláusulas del presente Convenio, bien sea en el total contenido de cada una de ellas o solamente en los puntos o aspectos de las mismas específicamente diferenciados, aquellas empresas que pacten o tengan pactado con la representación legal de las personas trabajadoras algún tema concreto y específico de forma distinta a como en el Convenio esté regulado, siempre que dichos pactos consten por escrito.

Artículo 4.º *Ámbito temporal.*

El presente Convenio entrará en vigor a todos los efectos, a partir del 1 de enero de 2024 y su duración será hasta el 31 de diciembre de 2027, salvo en aquellas materias respecto de las cuales se prevea en el Convenio una entrada en vigor diferente.

El preaviso de denuncia del próximo Convenio se realizará antes del 1 de enero de 2028.

Para determinar la composición de la representación sindical en la Mesa Negociadora para el Convenio colectivo de la Industria de la Madera 2024-2027, se tendrán en cuenta los resultados electorales a 31 de enero de 2024.

Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, para la constitución de las futuras mesas negociadoras se tomarán como referencia las representatividades que correspondan a 31 de julio del año de fin de vigencia de cada convenio.

Artículo 5.º *Carácter del convenio.*

Este Convenio se establece con carácter de mínimos, por lo que podrá ser complementado con Pactos a otros niveles.

Artículo 6.º *Absorción y compensación.*

Las condiciones económicas fijadas en el presente Convenio son absorbibles y compensables por las mejoras de toda clase (Plusas y cualquiera otros devengos) que existan con anterioridad, salvo las excepciones que expresamente se determinan en este Convenio y las establecidas legalmente.

Artículo 7.º *Condiciones más beneficiosas.*

Se mantendrán las condiciones más beneficiosas implantadas por las empresas en cuanto aquéllas superen en conjunto, las especificadas en este Convenio, de tal forma que ninguna persona trabajadora pueda verse perjudicada por la aplicación de las mismas.

A los efectos del párrafo anterior, únicamente se entenderá como perjuicio, la disminución del monto salarial total de la persona trabajadora como consecuencia de la actualización del presente convenio.

II. KAPITULUA

ORDAINSARIAK, DIRULAGUNTZAK ETA HABOROKINAK

8. artikulua. Soldatak.

* 2024ko gutxieneko ordainsarien taulak egitea:

2024ko urtarrilaren 1etik indarrean dauden gutxieneko ordainsarien taulak honela ezarri dira (ikus eranskina):

– 2023ko abenduaren 31n eguneratu da, 2003. urterako indarrean dagoen taulari % 42,60, hau da, 2003. urtetik 2022. urtera arteko KPIren batura, aplikatuta.

– Igoerak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, 2023ko KPI (% 3,10) 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen taulari aplikatuta.

* 2025eko gutxieneko ordainsarien taulak egitea:

2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitarteko aldirako, Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoak egingo du gutxieneko ordainsarien taula, 2024ko KPI jakin ondoren. Ondore horietarako, 2025ean jaso beharreko ordainsariek 2024ko KPIren pareko igoera izango dute.

KPI negatiboa bada, soldata-tauletan ez da eraginik jasoko, aplikatu beharreko zenbatekoa 0 izango baita.

* 2026ko gutxieneko ordainsarien taulak egitea:

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoak egingo du gutxieneko ordainsarien taula, 2025eko KPI jakin ondoren. Ondore horietarako, 2026an jaso beharreko ordainsariek 2025eko KPIren pareko igoera izango dute.

KPI negatiboa bada, soldata-tauletan ez da eraginik jasoko, aplikatu beharreko zenbatekoa 0 izango baita.

* 2027ko gutxieneko ordainsarien taulak egitea:

2027ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoak egingo du gutxieneko ordainsarien taula, 2026ko KPI jakin ondoren. Ondore horietarako, 2027an jaso beharreko ordainsariek 2026ko KPIren pareko igoera izango dute.

KPI negatiboa bada, soldata-tauletan ez da eraginik jasoko, aplikatu beharreko zenbatekoa 0 izango baita.

Hitzarmen hau negoziatu duten alderdiek adostu dute enpresek 2004ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arte kolektiboki aplikatu dituzten igoerak, bai alde bakarretik, bai enpresaren barruan hartutako edozein motatako itun, akordio edo erabakiren ondorioz, nominan edozein izen edo kontzepturen pean, hitzarmenaren konturako gehikuntzat hartuko direla. Hori dela eta, hitzarmen honetan aurreikusi diren eguneraketaren eta igoeren bidez, xurgartu eta konpentsatu ahalko dira.

1) Hitzarmenaren oinarriko soldata: eranskinean soldata-tauletako A zutabean azaltzen den soldata hitzarmeneko oinarriko soldatatzat hartuko da.

2) Hitzarmeneko plusa laneguneko erantsitako soldata-tauletako B zutabean lanbide-kategoria bakoitzarentzat ezarri den kopurua da. Plus hori lanegun bakoitzeko jasoko da.

CAPÍTULO II

RETRIBUCIONES, SUBVENCIONES Y GRATIFICACIONES

Artículo 8.º Salarios.

* Elaboración de las Tablas de Retribuciones Mínimas para 2024:

Las tablas de retribuciones mínimas con vigencia desde el 1 de enero de 2024 (anexo), se han elaborado de la siguiente manera:

– Actualización a 31 de diciembre de 2023, aplicando a la tabla con vigencia para el año 2003, el 42,60 %, que se corresponde a la suma de los IPCs correspondientes desde el año 2003 hasta el año 2022.

– Incremento con efectos desde el 1 de enero de 2024, aplicando el IPC de 2023 (3,10 %) sobre la tabla vigente a 31 de diciembre de 2023.

* Elaboración de las Tablas de Retribuciones Mínimas para 2025:

Para el periodo de 1 de enero 2025 a 31 diciembre 2025 la tabla de retribuciones mínimas se elaborará por la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio una vez conocido el IPC correspondiente al año 2024. A estos efectos las retribuciones a percibir en 2025 experimentarán un incremento equivalente al IPC de 2024.

En caso de que el IPC resultante fuese negativo, la tabla salarial no se verá afectada, siendo la cantidad aplicable 0.

* Elaboración de las Tablas de Retribuciones Mínimas para 2026:

Para el periodo de 1 enero 2026 a 31 diciembre 2026 la tabla de retribuciones mínimas se elaborará por la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio una vez conocido el IPC correspondiente al año 2025. A estos efectos las retribuciones a percibir en 2026 experimentarán un incremento equivalente al IPC de 2025.

En caso de que el IPC resultante fuese negativo, la tabla salarial no se verá afectada, siendo la cantidad aplicable 0.

* Elaboración de las Tablas de Retribuciones Mínimas para 2027:

Para el periodo de 1 enero 2027 a 31 diciembre 2027 la tabla de retribuciones mínimas se elaborará por la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio una vez conocido el IPC correspondiente al año 2026. A estos efectos las retribuciones a percibir en 2027 experimentarán un incremento equivalente al IPC de 2026.

En caso de que el IPC resultante fuese negativo, la tabla salarial no se verá afectada, siendo la cantidad aplicable 0.

Las partes negociadoras de este convenio acuerdan que los incrementos que las empresas hubieran aplicado con carácter colectivo para el periodo que va desde el 1 de enero de 2004 al 31 de diciembre de 2023 tanto de forma unilateral, como a consecuencia de pactos, acuerdos de cualquier índole o decisiones adoptadas en el seno de la empresa, bajo cualquier nombre o concepto en nómina, tendrán la consideración de incrementos a cuenta de convenio. De modo que resultarán absorbibles y compensables con la actualización e incrementos previstos en el presente convenio.

1) Salario-base de Convenio: Se considera Salario Base de Convenio el que figura como tal en las Columnas A de las Tablas Salariales anexas.

2) Plus Convenio día de trabajo: Se conceptuará como tal la cantidad que para cada categoría profesional se establece en las Columnas B de las Tablas Salariales anexas. Este Plus se percibirá por día de trabajo.

3) Pizgarririk ez izateagatiko gehigarria: Neurtu gabeko lanak egiten dituzten langileek, pizgarririk ez izateagatiko gehigarri gisa, erantsitako soldata-tauletako A + B zutabeen baturarekiko % 25eko igoera jasoko dute lanegun bakoitzeko. Erantsitako taulen C zutabeen zehaztu da pizgarririk ez izateagatiko gehigarri hori.

9. artikulua. Igandeei eta jai-egunei lotutako ordainsaria.

Hitzarmen honi erantsitako soldata-taulako A zutabeen adierazitako soldatak gehi, hala badagokio, Antzinasun Finkatuaren Plusak osatuko dute zenbatekoa.

10. artikulua. Antzinasuna.

Hitzarmen kolektibo hau negoziatu duten alderdiek Zur Industriaren Hitzarmen Kolektiboan (2001-2003) lortutako akordiora jo dute. Akordio horretan antzinasun-osagarria kentzea eta konpentsatzea erabaki zen.

11. artikulua. Lan toxikoak, nekagarriak eta arriskutsuak.

Agintari eskudunak aitortutako lan toxikoak, nekagarriak edo arriskutsuak egiten dituzten langileek hitzarmen honetako A zutabeen soldataren gaineko hobari bat jasoko dute, antzinasun finkatuaren plusa gehituta, % 20, % 25 edo % 30ekoa, arestian deskribatutako zirkunstantzia bat, bi edo hiru gertatzen diren arabera.

Lan-agintaritzak arlo horretan emandako ebazpenen ondorio ekonomikoek administrazio-espidentea hasi arteko atzeraeragina izango dute.

12. artikulua. Erreminten higadura.

Lan-tresna propioak enpresak eskatutako eta enpresaren konturako erabiltzen dituzten langileek 3,5204 euroko kalte-ordaina jasoko dute asteen 2024. urtean.

Zenbateko horrek 2024ko KPIren igoera izango du 2025-01-01etik 2025-12-31ra.

2026-01-01etik 2026-12-31ra arte, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2025. urteko KPIren baliokideko igoera izango du.

2027-01-01etik 2027-12-31ra, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2026ko KPIren baliokideko igoera izango du.

Artikulu honetan araututako kalte-ordaina hitzarmena argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da, eta ez du atzeraeraginezko ondoriozko izango.

13. artikulua. Urruntasun-plusa.

Urruntasun-plusa ezartzen zaie bizilekua lantokitik bi kilometro baino urrunago duten langile guztiei. Plusaren zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Enpresako lan-ordutegiari egokitzen zaion garraio publiko egonez gero, zenbat bidaia egiten diren etxetik lantokira, hainbat joan-etorri ordainduko dira, eta horien zenbatekoa garraio publikoko txartelaren prezioa izango da.

b) Garraio publikorik ez baldin bada, 2024. urtean 0,2239 euro ordainduko dira kilometro bakoitzeko, bidaia langilearen autotan egiten bada; eta 0,1014, gainerako kasuetan. 2025-01-01etik 2025-12-31ra, zenbateko horiek 2024ko KPIren baliokideko igoera jasoko dute.

2026-01-01etik 2026-12-31ra, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2025eko KPIren baliokideko igoera izango du.

3) Prima por Carencia de Incentivo: El personal que realice trabajos que no estén medidos, percibirá por día de trabajo, en concepto de carencia de incentivo, un incremento del 25 % sobre la suma de las columnas A + B de las Tablas Salariales anexas. Dicha prima por carencia de incentivo se determina en las Columnas C de las Tablas mencionadas.

Artículo 9.º Retribución dominical y de días festivos.

Su importe será el salario que se señala en la Columna A de la Tabla Salarial anexa al presente Convenio, más el Plus de Antigüedad Consolidada, en su caso.

Artículo 10.º Antigüedad.

Las partes negociadoras de este Convenio colectivo se remiten al acuerdo alcanzado en el Convenio colectivo de la Industria de la Madera 2001-2003 en el que se decidió la supresión y la correspondiente compensación del complemento de antigüedad.

Artículo 11.º Trabajos excepcionalmente tóxicos, penosos y peligrosos.

Las personas trabajadoras que realicen labores tóxicas, penosas o peligrosas, declaradas por la Autoridad Competente, percibirán una bonificación sobre el salario de la Columna A del presente Convenio, incrementado con el Plus de Antigüedad Consolidada, de un 20 %, 25 % o 30 %, según concurren una, dos o las tres circunstancias anteriormente descritas.

Los efectos económicos de las resoluciones de la Autoridad Laboral en esta materia se retrotraerán al inicio del expediente administrativo correspondiente.

Artículo 12.º Desgaste de herramientas.

Las personas trabajadoras que utilicen herramientas propias por indicación y para trabajos por cuenta de la empresa, percibirán una indemnización por este concepto de 3,5204 euros semanales el año 2024.

Para el periodo desde el 01.01.2025 al 31.12.2025 esta cuantía experimentará un incremento del IPC del 2024.

Para el periodo desde el 01.01.2026 al 31.12.2026 la cuantía resultante de la aplicación del párrafo anterior se incrementará en el equivalente al IPC del año 2025.

Para el periodo desde el 01.01.2027 al 31.12.2027 la cuantía resultante de la aplicación del párrafo anterior se incrementará en el equivalente al IPC del año 2026.

La indemnización regulada en este artículo será de aplicación a partir de la publicación del Convenio y no tendrá efectos retroactivos.

Artículo 13.º Plus de distancia.

Se establece un plus de distancia para todas las personas trabajadoras cuyo domicilio se encuentre a más de dos kilómetros del centro de trabajo. La cuantía de este plus será la siguiente:

a) Caso de existir transporte público, que se ajuste al horario de trabajo en la empresa, se abonarán tantos desplazamientos como viajes se efectúan del domicilio al centro de trabajo y su importe será el del precio del billete del transporte público.

b) Caso de no existir transporte público se abonarán 0,2239 euros por kilómetro si el traslado se efectúa en automóvil propio y 0,1014 euros kilómetro en los demás casos durante el año 2024. Para el periodo desde el 01.01.2025 al 31.12.2025 estas cuantías experimentarán un incremento del IPC del año 2024.

Para el periodo desde el 01.01.2026 al 31.12.2026 las cuantías resultantes de la aplicación del párrafo anterior se incrementarán en el equivalente al IPC del año 2025.

2027-01-01etik 2027-12-31ra, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2026ko KPlren baliokideko igoera izango du.

c) Zenbateko horiek ez dira aplikatuko langilearen helbidea eta lantokia hirigunean badaude, Donostian izan ezik.

Hasierako kontratazioan urruntasun-plusa ezarri ondoren, plus horren zenbatekoak ez du gorakadarik izango, ez eta murziketarik ere, langilearen bizilekua aldatu ondoren.

Artikulu honetan araututako plusa hitzarmena argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da, eta ez du atzeraeraginezko ondoriozko izango.

14. artikulua. Aparteko haborokinak.

Udako eta Gabonetako aparteko bi haborokin ezarri dira. Bakoitza hogeita hamar egunekoa izango da, eta soldata errealtzen arabera ordainduko dira: 25 laneguneko eta 5 jaieguneko. Benetan lan egindako azken hiru hilabeteetako batez bestekoa- ren arabera kalkulatu da gehigarri hori.

15. artikulua. Aparteko orduak.

Hitzarmen hau izenpetzen dutenek bat egin dute 1999ko urtarrilaren 15ean Confebask eta ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuek aparteko orduak ezabatzeari buruz itundu duten Konfederazioarteko Erabakiarekin. Horren arabera eta akordio hori garatu asmoz, honako hau adostu dute:

Erabakiak:

1) Aparteko orduetan lan egiteko aukera kendu egiten da, artikulu horren 2. puntuan arautzen diren salbuespenezko kasuetan izan ezik.

2) Salbuespen modura, ohiko lanaldia luzatu egin ahal izango da, honako kasu hauetan:

Lehena. Ezinbesteko kasuetan; hau da, istripuak edota ezohiko beste kalte batzuk prebenitu edo konpondu behar direnean, eta hori premia larria denean.

Bigarrena. Behar adinako aurrerapenarekin aurreikusi ezin diren arrazoiak tarteko, enpresak behar bezala funtzionatzeko lanaldi arrunta luzatzea ezinbestekoa denean. Nolanahi ere, frogatu egin behar da langile berriekin ezin zaiola lan-gainkarga horri aurre egin, arrazoi hauetako bat tarteko dela:

a) Lan-denbora oso laburra izanik, kontratazio berria egitea bideragarria ez delako.

b) Eskatutako denboran kontratazio berriak egitea ezinezkoa delako.

c) Enplegu-zerbitzu publikoen lankidetzak eskatu eta zerbitzu horiek ez diotelako eman enpresari lanposturako trebakuntza egokia duen langilerik.

3) Bigarren puntuan aurreikusitako salbuespenezko egoeren babesean lan egindako aparteko orduak atsedeen-denbora- rekin konpentsatuko dira. Konpentsazioa lan egindako 1,40 orduren baliokidea izango da.

Honako kasu hauetan soilik erabaki daiteke diruz konpentsatzea: ezinbesteko kasuetan, eta, 2.c) puntuan aurreikusten den kasua gertatzeagatik, atsedenez konpentsatzea ezinezkoa denean. Kasu horietan ordu arruntzen gaineko % 40ko errekar- gua ezarrita ordainduko dira ordu horiek.

Aurreko puntuan ezarritako guztiak ez dio kalterik egingo hitzarmen honetako 3. artikuluan ezarritakoari.

4) Artikulu hau enpresan aplikatzeko, langileen legezko ordezkarien eta enpresako zuzendaritzaren arteko akordio bidez zehaztu behar da. Akordio horiek honako gai hauek arautuko dituzte:

Para el periodo desde el 01.01.2027 al 31.12.2027 las cuantías resultantes de la aplicación del párrafo anterior se incrementarán en el equivalente al IPC del año 2026.

c) No se aplicarán estos importes si el domicilio de la persona trabajadora y el centro de trabajo se encuentran dentro del casco urbano a excepción de la localidad de San Sebastián.

Una vez establecido el Plus de Distancia en la contratación inicial, la cuantía de dicho plus no sufrirá incremento ni disminución alguna por posteriores modificaciones del domicilio de la persona trabajadora.

El plus regulado en este artículo será de aplicación a partir de la publicación del Convenio y no tendrá efectos retroactivos.

Artículo 14.º Gratificaciones extraordinarias.

Se establecen dos gratificaciones extraordinarias, de Verano y Navidad que serán de treinta días cada una, abonándose a Salario Real, a razón de 25 días laborables y 5 festivos, calculándose la prima en base a la media de los tres últimos meses realmente trabajados.

Artículo 15.º Horas extraordinarias.

Las partes signatarias del presente Convenio se adhieren al Acuerdo Interconfederal sobre supresión de horas extraordinarias suscrito entre Confebask y las Centrales Sindicales ELA, CC.OO., UGT y LAB, con fecha 15 de enero de 1999 y en base al mismo y en su desarrollo:

Acuerdan:

1.º) Queda suprimida la posibilidad de realizar horas extraordinarias, salvo en los supuestos excepcionales que se regulan en el punto 2.º del presente artículo.

2.º) Con carácter excepcional podrá prolongarse la jornada ordinaria de trabajo cuando concurra alguno de los siguientes casos:

Primero. Fuerza mayor, es decir, cuando se trate de prevenir o reparar siniestros y daños extraordinarios y urgentes.

Segundo. Cuando, por razones no previsibles con antelación suficiente, la prolongación de la jornada ordinaria resulte imprescindible para el normal funcionamiento de la empresa. Deberá acreditarse, en cualquier caso, que no resulta posible la realización del exceso de trabajo con cargo a nuevo personal por alguna de las siguientes razones:

a) Por tratarse de un tiempo de trabajo tan corto que no haga viable una nueva contratación.

b) Por no ser materialmente posible proceder a nuevas contrataciones en el tiempo requerido.

c) Porque, habiéndose requerido la colaboración de los servicios públicos de empleo, éstos no hayan facilitado a la empresa demandante personal con la cualificación adecuada al puesto correspondiente.

3.º) Las horas extraordinarias que se realicen al amparo de las situaciones excepcionales previstas en el punto 2.º) serán compensadas por tiempo de descanso. En estos casos la compensación será equivalente a 1,40 horas por hora trabajada.

Sólo podrá acordarse su compensación económica en los casos de fuerza mayor y en aquellos otros en los que la compensación por descanso resulte imposible por concurrir la circunstancia prevista en el punto 2.º c). En estos casos, esas horas se abonarán con un recargo del 40 % sobre el valor de la hora ordinaria.

Todo lo establecido en este punto lo será sin perjuicio de lo estipulado en el artículo 3.º de este Convenio.

4.º) La aplicación del presente artículo en la empresa requerirá su concreción mediante acuerdos entre la representación legal de las personas trabajadoras y la Dirección de ésta, que regularán las siguientes materias:

a) Ezabatze horren ondoriozko enplegu-aurreikuspenak eta -konpromisoak ezarriko dituzte, bai eta, hala badagokio, aparteko orduak kentzeak egin ditzakeen antolaketa-doikuntzak ere.

b) Bigarren paragrafoa aplikatuz lanaldia luzatzea baimentzen duten salbuespeneko egoerak gertatzen diren ala ez zehaztuko dute.

c) Konpentsazio-araubidea, bereziki lanaldiaren luzapena konpentsatzeko atsedeen-denboraren kuantifikazioa.

d) Enpresa-akordioek ezin izango dute konpentsazio ekonomikorik ezarri artikuluko honetako 3. paragrafoko bigarren lerro-kadan jasotako ez bestelako kasuetarako.

5) Aurreko puntuan adierazitakoa negoziatzeko ekimena enpresako zuzendaritzak edo langileen legezko ordezkariak hartu ahal izango dute, eta beste aldean negoziatzera behartuta egongo da. Alderen batek negoziatzeko hasteari uko egiten badio edo akordioa eragozten duten desadostasunak sortzen badira (4.c atalean izan ezik), aldeetako edozeinek izango du ahalmena Precon xedatutako Gatazkak Konpontzeko Prozedurak eskatzeko, eta besteak prozedura horietan parte hartu beharko du.

6) Nolanahi ere, langileen ordezkariak eta Enpresa Batzordeko kideak, bai eta ordezkari sindikalek ere, hala badagokio, hileroko jakinaraziko zaie zer aparteko ordu egin diren, zer erabaki hartu diren eta zergatik. Informazio hori enpresak sinatu eta zigilatuko du.

16. artikulua. Aldi baterako ezintasuna.

– Lan-istripua eta lanbide-gaixotasuna.

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasun-prestazioa erantsitako soldata-tauletan beren lanbide-kategoriarako ezarritako hitzarmeneko soldata (pizgarririk eza barne) baino txikiagoa duten langileek enpresaren osagarri bat jasoko dute, bajaren lehen egunetik lehen hilabete jarraitua osatu arte, aldi baterako ezintasun-prestazioa beren lanbide-kategoriarako hitzarmeneko soldataren % 100eraino osatzeko.

Gertakizun beraren ondoriozko bajako lehen hilabete jarraitutik aurrera, langileak aldi baterako ezintasuneko prestazioa osatuko duen osagarri bat jasoko du, soldata errealtaren % 100eraino, gehienez 18 hilabetera arte, bajako lehen egunetik zenbatzen hasita. Langile horien aparteko haborokinean ez da inolara jasoko baja horren ondorioz.

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasun-prestazioa erantsitako soldata-tauletan beren lanbide-kategoriarako ezarritako hitzarmeneko soldata (pizgarririk eza barne) baino handiagoa duten langileek aldi baterako ezintasuna osatzen duen enpresaren osagarri bat jasoko dute bajako lehen hilabete jarraitutik aurrera, benetako soldataren % 100eraino, gehienez ere 18 hilabete igaro arte, bajaren lehen egunetik zenbatzen hasita. Langile horiek dagokien aparteko haborokina jasoko dute, haien zenbatekotik deskontatuta aseguru-erakundeek aldi baterako ezintasun-prestazioan ordaindutako aparteko haborokin horren zati proportzionala, % 100era arte osatu gabeko baja-aldietan.

– Gaixotasun arrunta edo lanez kanpoko istripua.

Gaixotasun arruntak edo lanez kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasunaren kasuan, bajaren hirugarren hilabete jarraitutik aurrera, langileek enpresaren osagarri bat jasoko dute, zeinak aldi baterako ezintasunaren prestazioa osatuko baitu, soldata errealtaren % 100 arte, 18 hilabetez gehienez ere, bajaren lehen egunetik zenbatzen hasita.

a) Establecerán las previsiones y compromisos de empleo que se deriven de aquella supresión, así como los ajustes organizativos que la supresión de horas extraordinarias pudiera hacer en su caso necesarios.

b) Determinarán de la concurrencia de las situaciones excepcionales en las que, en aplicación del apartado 2.º, se entienda autorizada la prolongación de jornada.

c) Régimen compensatorio, en particular la cuantificación del tiempo de descanso compensatorio de la prolongación de jornada.

d) Los acuerdos de empresa no podrán establecer la compensación económica para supuestos distintos de los contemplados en el segundo párrafo del apartado 3.º de este artículo.

5.º) La iniciativa de negociación de lo señalado en el punto anterior podrá ser tomada por la Dirección de la empresa o por la Representación Legal de las personas trabajadoras en la misma, estando la otra parte obligada a sentarse a negociar. En el caso de que alguna de las partes se negara a iniciar la negociación o surgieran en las mismas discrepancias que impidieran el acuerdo (excepto en el apartado 4.º c)), cualquiera de las partes estará facultada para instar los Procedimientos de Resolución de Conflictos previstos en el Preco, quedando obligada la otra a hacerse parte en los mismos.

6.º) En cualquier caso, los/las Delegados/as de Personal y miembros del Comité de Empresa, así como los/as Delegados/as sindicales, en su caso, serán informados/as mensualmente de las horas extraordinarias que se hayan efectuado y los acuerdos celebrados al respecto, así como de las causas que lo motivaron. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

Artículo 16.º Incapacidad temporal.

– Accidente de trabajo y enfermedad profesional.

Las personas trabajadoras cuya prestación de I.T. derivada de accidente de trabajo o enfermedad profesional, sea inferior al salario de Convenio (incluida la carencia de incentivo) establecido para su categoría profesional en las Tablas Salariales anexas, percibirán, desde el primer día de baja y hasta completar el primer mes ininterrumpido, un complemento de la empresa que complete la prestación de I.T. hasta el 100 % del salario de Convenio para su categoría profesional.

A partir del primer mes ininterrumpido de baja, derivada de la misma contingencia la persona trabajadora percibirá un complemento que complete la prestación de I.T. hasta el 100 % de su salario real, hasta un máximo de 18 meses contados desde el primer día de baja. Dichas personas trabajadoras no sufrirán ninguna repercusión en la gratificación extraordinaria correspondiente, como consecuencia de dicha baja.

Las personas trabajadoras cuya prestación de I.T. derivada de accidente de trabajo o enfermedad profesional sea superior al salario de Convenio (incluida la carencia de incentivo) establecido para su categoría profesional en las Tablas Salariales anexas, percibirán a partir del primer mes ininterrumpido de baja, un complemento de la empresa que complete la I.T. hasta el 100 % de su salario real, hasta un máximo de 18 meses contados desde el primer día de baja. Dichas personas trabajadoras percibirán la gratificación extraordinaria correspondiente, descontando de su importe la parte proporcional de dicha gratificación extraordinaria abonada, por las entidades aseguradoras, en la prestación de I.T., durante los períodos de baja no completados hasta el 100 %.

– Enfermedad común y accidente no laboral.

En el supuesto de Incapacidad Temporal derivada de enfermedad común o accidente no laboral, las personas trabajadoras percibirán a partir del tercer mes ininterrumpido de la baja, un complemento de la empresa que complete la prestación de I.T. hasta el 100 % de su salario real, hasta un máximo de 18 meses contados desde el primer día de baja.

Langile horiek dagokien aparteko haborokina jasoko dute, Gizarte Segurantzak aldi baterako ezintasunaren prestazioan ordaintzen dien aparteko haborokin horren zati proportzionala kenduta, osatu gabeko baja-aldietan, soldata errearen % 100era arte.

Gaixotasun arrunten kasuan, eta urteko lehen bajaran soilik, lehen lau egun-erdiak % 50ean ordainduko dira; ala, bestela, bajaren lehen bi egunak % 75ean.

17. artikulua. Dietak.

Hauxe da dieten zenbatekoa:

- Dieta osoa: 38,6294 euro egun bakoitzeko.
- Dieta erdia: 15,2868 euro egun bakoitzeko.
- Nork bere autoan bidaiatzea: 0,3747 euro/km.
- Bidaia, beste bidelagun batekin edo batzuekin: 0,3852 euro/km.

Zenbateko horrek 2024ko KPIren igoera izango du 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 25era.

2026-01-01etik 2026-12-31ra, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2025. urteko KPIren baliokide-ko igoera izango du.

2027-01-01etik 2027-12-31ra, aurreko paragrafoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak 2026. urteko KPIren baliokide-ko igoera izango du.

Enpresek gastu eta dietengatik ordaindu beharreko zenbatekoak aurreratuko dizkiete gidariei.

Dieta horien zenbatekoak hitzarmena argitaratzen denetik aurrera aplikatuko dira, eta ez dute atzeraeraginik izango.

18. artikulua. Euskara sustatzeko dirulaguntza.

Enpresek euskara-eskolen kostuaren % 50 ordainduko diete langileei, eskolara joan izana egiaztatzen badute. Enpresek ikaslekua aukeratu ahal izango dute.

19. artikulua. Nominak ordaintzea.

Enpresa eta langileak ados jarrita, soldatak hilero ordaindu ahal izango zaizkie langile guztiei, eta konturako aurrerakinak ezarri ahal izango dira.

III. KAPITULUA

LANALDIA, OPORRAK ETA LIZENTZIAK

20. artikulua. Lanaldia.

Enpresak hala aginduta, langilea destinatuta dagoen obran edo lantokian hasiko da lanaldia.

Hauxe izango da 2024., 2025., 2026. eta 2027. urteetako lanaldia:

– 2024:

Lanaldi zatitua: 1.729 ordu.

Lanaldi jarraitua: 1.729 ordu, eta horren barne hartzen dira laneko denboratzat hartzen den 15 minutuko atsedendia.

– 2025:

Lanaldi zatitua: 1.727 ordu.

Lanaldi jarraitua: 1.727 ordu, eta horren barne hartzen dira laneko denboratzat hartzen den 15 minutuko atsedendia.

Dichas personas trabajadoras percibirán la gratificación extraordinaria correspondiente, descontando de su importe la parte proporcional de dicha gratificación extraordinaria abonada a las mismas, por la Seguridad Social, en la prestación de I.T., durante los períodos de baja no complementados hasta el 100 % del salario real.

En los casos de enfermedad común y sólo en la primera baja del año se abonarán los cuatro primeros medios días al 50 % o en su caso los dos primeros días de baja al 75 %.

Artículo 17.º Dietas.

Se establecen dietas en la cuantía siguiente:

- Dieta completa: 38,6294 euros/día.
- Media dieta: 15,2868 euros/día.
- Desplazamiento de vehículo propio: 0,3747 euros/km.
- Desplazamiento con acompañante/s: 0,3852 euros/km.

En el periodo desde el 01.01.2025 al 31.12.2025 esta cuantía experimentará un incremento del IPC del 2024.

En el periodo desde el 01.01.2026 al 31.12.2026 la cuantía resultante de la aplicación del párrafo anterior se incrementará en el equivalente al IPC del año 2025.

En el periodo desde el 01.01.2027 al 31.12.2027 la cuantía resultante de la aplicación del párrafo anterior se incrementará en el equivalente al IPC del año 2026.

Las empresas adelantarán a los/as chóferes, las cantidades que deban satisfacer por gastos y dietas.

Las cuantías de estas dietas serán de aplicación a partir de la publicación del Convenio y no tendrá efectos retroactivos.

Artículo 18.º Subvención al euskera.

Las empresas subvencionarán a las personas trabajadoras las clases de euskara al 50 % previa justificación de la asistencia a clase. Las empresas podrán designar el centro de estudios.

Artículo 19.º Pago de nóminas.

Por acuerdo entre empresa y las personas trabajadoras, se podrán abonar los salarios de forma mensual a la totalidad del personal, pudiendo establecerse anticipos a cuenta.

CAPÍTULO III

JORNADA, VACACIONES Y LICENCIAS

Artículo 20.º Jornada de trabajo.

La jornada de trabajo se iniciará en la obra o lugar de trabajo al que haya sido destinada la persona trabajadora por indicación de la empresa.

La jornada de trabajo durante 2024, 2025, 2026 y 2027 será de:

– 2024:

Jornada partida: 1.729 horas.

Jornada continuada: 1.729 horas, quedando incluidos dentro de la misma, los 15 minutos de descanso considerados como de trabajo.

– 2025:

Jornada partida: 1.727 horas.

Jornada continuada: 1.727 horas, quedando incluidos dentro de la misma, los 15 minutos de descanso considerados como de trabajo.

– 2026:

Lanaldi zatitua: 1.725 ordu.

Lanaldi jarraitua: 1.725 ordu, eta horren barne hartzen dira laneko denboratzat hartzen den 15 minutuko atsedenaldia.

– 2027:

Lanaldi zatitua: 1.725 ordu.

Lanaldi jarraitua: 1.725 ordu, eta horren barne hartzen dira laneko denboratzat hartzen den 15 minutuko atsedenaldia.

Atsedenaldien edo beste murrizketa batzuen ondorioz 2023an 1.729 ordutik beherako benetako lanaldia egin duten langileek (ordaindutako atsedenaldiak kontuan hartu gabe), 2023an egin-dako benetako lanaldi berari eutsiko diote urteko zenbaketan, eta, hala badagokio, atsedeen-denborak aldatuko dira, urteko presentzia-orduak 1.729 ordutik gorakoak izan ez daitezten.

21. artikulua. Laneko egutegia.

Enpresek laneko egutegiak egingo dituzte urteko bakoitzeko urtarrilean.

Adostutako egutegiei dagokienez, ekoizpenak hala eskatzen badu, enpresako zuzendaritzak lanegun bakoitzari dagozkion orduak gehitu edo murriztu ahal izango ditu, eguneko bederatzi orduko gehieneko mugarekin. Zuzendaritzak idatziz eta 72 orduko aurrerapenez jakinarazi beharko die eraginpeko langileei eta Enpresa Batzordeari lan-egutegien aldaketa, eta lan-egutegiak konpentsatzeko modua eta aldia adierazi beharko ditu, urtean egin beharreko lanaldiak hitzarmen honetarako itundutako guztizko ordu kopurua gaindi ez dezan.

Aurreko paragrafoa aplikatzeak ekar ditzakeen orduak lan-egutegietan lanegun gisa agertzen diren egunetan baino ezin izango dira errekuatu.

22. artikulua. Kanpoan lan egitea.

Langileak enpresa dagoen herritik kanpora joan behar badu, eta joan-etorri horietan emandako denbora ohikoa baino handiagoa bada, denbora hori ohiko lanaldiko soldataren hainbana-ketaren arabera ordainduko da.

Era berean, enpresak hitzarmen honetan joan-etorrietarako ezarritako prezioan ordaindu beharko ditu kilometroak, honako baldintza hauek aintzat hartuta:

a) Langilearen bizilekua bat badator enpresaren kokapenarekin eta langilea beste herri batera lekualdatzen bada, joan-etorriaren zenbatekoa ordainduko da, enpresaren eta lantokiaren arteko distantziaren arabera.

b) Langilearen bizilekua ez badator bat enpresaren helbidearekin, eta beste lantoki batera lekualdatzen badute, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

– Lekualdaketa onduz, langileak beste lantoki batera joan behar badu, eta lantoki hori langilearen bizilekuaren eta enpresaren kokapenaren artean badago, distantzia-pluserako ezarritako prezioan ordainduko da bien arteko distantzia.

– Lekualdatzen den lantokia enpresaren kokapenetik baino urrunago badago, langilearen bizilekuaren eta enpresaren arteko distantzia ordainduko da urruntasun-pluserako ezarritako prezioan. Enpresa kokatuta dagoen herriaren eta lekuz aldatu den lantokiaren arteko distantzia, joan-etorrietarako kilometrajearen arabera ezarritako prezioan ordainduko da.

– 2026:

Jornada partida: 1.725 horas.

Jornada continuada: 1.725 horas, quedando incluidos dentro de la misma, los 15 minutos de descanso considerados como de trabajo.

– 2027:

Jornada partida: 1.725 horas.

Jornada continuada: 1.725 horas, quedando incluidos dentro de la misma, los 15 minutos de descanso considerados como de trabajo.

Aquellas personas trabajadoras que como consecuencia de descansos u otras reducciones hubiesen realizado durante 2023 una jornada de trabajo efectivo (sin incluir los períodos de descanso retribuidos), en cómputo anual, inferior a las 1.729 horas, mantendrán asimismo en cómputo anual, la misma jornada efectiva de trabajo que la realizada en 2023, modificándose en su caso, los tiempos de descanso, al objeto de que las horas de presencia en cómputo anual, no excedan de 1.729 horas.

Artículo 21.º Calendario de trabajo.

Las empresas confeccionarán los calendarios de trabajo durante el mes de enero de cada año.

Sobre los calendarios acordados, la Dirección de la empresa podrá por exigencia de la producción, aumentar o disminuir el número de horas correspondientes a cada día de trabajo, con el tope máximo de 9 horas diarias. La Dirección deberá comunicar por escrito a las personas trabajadoras afectadas y al Comité de Empresa la modificación de los calendarios de trabajo con una antelación de 72 horas indicando la forma y período para compen-sar los calendarios de trabajo, de forma que la jornada a realizar anualmente no supere el número de horas total pactado para este Convenio.

La recuperación de las horas que pueda dar lugar la aplicación del párrafo anterior se deberá efectuar exclusivamente en aquellos días que figuren como de trabajo en los correspondientes calendarios laborales.

Artículo 22.º Trabajos en el exterior.

Cuando sea necesario un desplazamiento fuera de la localidad donde radique la empresa, si el tiempo invertido en tales desplazamientos fuera superior al habitual, el exceso de dicho tiempo se abonará a prorrata del salario en jornada ordinaria.

Así mismo, la empresa vendrá obligada a abonar el kilometraje al precio estipulado para los desplazamientos en el presente convenio con las siguientes consideraciones:

a) Si el domicilio de la persona trabajadora coincide con el de la ubicación de la empresa y la persona trabajadora es desplazada a otra localidad se abonará el importe del desplazamiento, según la distancia existente entre la empresa y el centro de trabajo al que ha sido destinada.

b) Si el domicilio de la persona trabajadora es distinto del lugar donde se ubica la empresa y es desplazada a otro centro de trabajo operaran los siguientes criterios:

– Si el centro de trabajo al que es desplazada, se encuentra entre el domicilio de la persona trabajadora y el de la ubicación de la empresa, se abonará la distancia entre ambos al precio establecido para el plus de distancia.

– Si el centro de trabajo al que es desplazada, se encuentra más alejado que el de la ubicación de la empresa, se abonará la distancia existente entre el domicilio de la persona trabajadora y ésta al precio establecido para el plus de distancia. Y la distancia existente entre la localidad donde esté ubicada la empresa y la del centro de trabajo al que ha sido desplazada al precio establecido por kilometraje para los desplazamientos.

– Langilearen bizilekua eta lekualdaketa onduzko lan-tokia langilearen bizilekuaren eta enpresaren kokapenaren artean dagoen norabidea ez den beste batean badaude, kilometroak joan-etorrietarako ezarritako prezioan ordainduko dira, langilearen bizilekuaren eta lekuz aldatu den herriaren arteko distantziaren arabera.

– Ez dira dietak ordaintzeko joan-etorritzat hartuko enpresa kokatuta dagoen udalerraren barruan egiten direnak.

– Lekualdatutako langileak gaua bere etxean eman ahal badu, dieta erdia baino ez du sortuko.

Konpentsazio horiek hitzarmena argitaratzen denetik aurrea aplikatuko dira, eta ez dute atzeraeraginik izango.

23. artikulua. Oporrak.

